

2026. URTEAN BAZTANGO ELKARTEEK SUSTATUTAKO KULTUR JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

Baztango Udalak, kultura-elkarteen eta arte-erakundeen jarduerak babesteko asmoz, norgehiagoka bidezko dirulaguntzak emateko oinarri hauek onartu ditu.

Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, **22.000 eurokoa da, 2026. urteko aurrekontuan dagoen 1-3340- 4890000 “Kultur elkarten diru-laguntzak” kontu-sailean jaso.** 1-3269-4890001 aurrekontu-zuzkidura osoa agortzen ez bada, Baztango Udalak 1-3340 4890000 kontu sailera zuzenduko du.

1. Xedea

Ondoko ezaugarriak dituzten **kultur jarduerak** antolatzeko dirulaguntza ematea:

- a) Euskararen erabilerari laguntzen diotenak izatea.
- b) Formakuntzak (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...) izatea.
- c) Sormen lanak (erakusketak...) izatea.
- d) Artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...) edo antzeko izaera duten bertze batzuk izatea.
- e) Herritar guziendako irekiak izatea.
- f) Genero-berdintasuna edota emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira ondoko jarduerak:

- a) Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza-jarduerak.
- b) Kirol-jarduerak.
- c) Herriko bestetakoak eta laguntza jarduerak.
- d) Udalerritik kanpo egiten direnak.
- e) Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruz erabat lagunduek.
- f) Egoitza edo lokalak egokitze lanak edo hirigintza arloko bertze edozein lan.
- g) Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...); mantenu gastuak (bazkariak, afariak, etab), kilometrajea eta musika taldeek sortutako gastuak (orkestrak).
- h) Ezaugarri sexistak, arrazistak, edo indarkeriakoak barne hartzen dituzten jarduerak.
- i) Udal eskaintzarekin lehiatuko diren jarduerak.
- j) Elkarteek beste erakunde batzuei diruz laguntzen dizkieten jardueren gastuak.
- k) Sukaldaritza- eta gastronomia-ikastaroak.
- l) Erraldoi eta buruhandien erosketa.
- m) Obra birsortzeko ez den bertze erabilera bat izan dezaketen jantziak, edo merkataritza-sustapeneko ar-tikuluak izan daitezkeenak.

Hauek izanen dira diruz lagunduko direnak:

- a) Antolakuntza. Kultur proiektua egiteak eta garatzeak zuzenean eragiten dituen gastuek baino ez dute dirulaguntza jasoko. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu bezala, ez osorik ezta zati batean ere, erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeak eragindako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak, egitura funtzionala mantentzeko gastuak, alokairuak...).

2. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntza hauen onuradunek ondoko betebeharrak dituzte:

- 2.1. Irabazi asmorik gabeko elkarteak izatea. Elkartearen estatutuak auzeratu behar dira. Baztango Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da agiri horiek aldatu ez direla adierazten duen legezko ordezkariaren aitortzea, agiri horiek ez direla aldatu. (III eranskina ikusi)
- 2.2. Zerga egoitza eta helbide soziala Baztanen izatea.
- 2.3. Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak eguneratuta izatea eta Baztango Udalarekin zorrik ez izatea.
- 2.4. Onuradunek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Honako hauek ezin izanen dute parte hartu eta ez dute parte hartuko deialdi honetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta beren asmo edo helburuak, onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aurkakoak badira.

- Pertsona fisiko eta juridikoak, baldin eta berdintasunerako eta sexuagatiko bereizkeriarik ezarako eskubidea urratzeagatik, soldata-bereizkeriagatik, sexu-jazarpenagatik edo jazarpen moral edo sexuagatiko beste edozein tratu desberdinengatik administrazio-bidean, lan-bidean edo bide penalean irmo zehatuak edo kondenatuak izan badira.

- Genero-berdintasunari buruzko legerian ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten erakundeak edo enpresak. Sexuagatik edo generoagatik diskriminatzailatzat jotako lan-praktikak egiteagatik edo onartzeagatik administrazio-ebazpen irmoz edo epai judizial irmoz zigortutako edo kondenatutako erakundeak. Horretarako, laguntzak eskatzeko unean, enpresa eta erakunde eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko dute, administrazio-zehapen irmorik eta epai kondenatzaile irmorik betetzen ari ez direla adierazteko, edo, hala badagokio, arrazo horiengatik ezarritako zehapen edo kondena-epai bat betetzeko zain ez dardela adierazteko.

- Ezin izanen dira onuradun izan dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako egoeraren batean dauden erakundeak. III. eranskinean jasotakoaren arabera (4. baldintza).

3. Deialdia eta izapidea

Eskabideak behar bezala beterik telematikoki aurkeztu beharko dira, Baztango Udalaren erregistro elektronikoaren bidez [Sede Electrónica - BAZTAN](#) edo edozein erregistro ofizialen bidez, elkartearen legezko ordezkariak duen pertsonak.

Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 6a arte izanen da, egun hori barne.

Deialdian aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar eta eskabideak emandako ereduaren arabera bete beharko dira (I. Eranskina). Jarduerak 2025eko azaroaren 8tik 2026ko azaroaren 6a bitartean egingen dira, biak barne.

Dirulaguntzak emateko prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan ematen dion organoa izanen da.

Balorazioa. Eskabideen ebazpen-proposamena egiteko eskumena izanen duen balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute: kultura zinegotziak, kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi batek.

Era berean, balorazio-batzordeak haren kide ez diren teknikarien aholkularitza eskatu ahal izanen du.

4. Dirulaguntza ematea

Emanen den gehienezko zenbatekoa ez da diruz laguntzen ahal diren eta onartu diren gastuen % 75 baino gehiago izanen.

Dena dela, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 6.000 € baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

Baztango Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egokitzen jotzen duen bertze edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izanen dio eskatzaileari, aurkeztutako eskaeraren balorazioa egiteko.

Errekerimenduak posta elektronikoz egingen dira, eskaera- inprimakian jasotako helbidera zuzenduta.

Dirulaguntza eman baino lehenago, behar izanez gero, batzordeak eskatzaileari deitu ahal izanen dio honek behar dituen azalpenak eman ditzan.

Udalak onartutako dirulaguntza ordainketa bakarrean emanen du, gastuak justifikatu ondoren: burututako jardueraren oroitidazkia edo memoria (II. Eranskina), jarduera egiteko erabili diren bertze dirulaguntzen edo bertzelako diru-sarreraren gaineko erantzukizun-aitorpena.

Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2026ko azaroaren 6ra arte izanen da, egun hori barne.

Onartutako gastuen % 100 justifikatuko da, ez Baztango Udalak emandako dirulaguntza kopurua bakarrik. Gastuak kultur elkartearen izenean dauden jatorrizko fakturen bidez justifikatuko dira; horiek, behin egiaztatu eta zigilatu ondoren, dirulaguntzaren eskatzaileari bueltatuko zaizkio. Faktura horietan bilduko dira legeek eskatzen dituzten datu guztiak eta baita jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere. Hartu- agiriak bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuen kasuan bakarrik onartuko dira, eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan; hala balitz, faktura egin eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu behar ditu: jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-abizenak, IFZa eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; prezio osoa, eta tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Ordainagiriekin eta faturekin batera, banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Ematen den dirulaguntza bateraezina izanen da Baztango Udaleko bertze dirulaguntzekin, eta bateragarria izanen da bertze administrazio publiko batzuek, erakunde publiko edo pribatuek eta norbanakoek, naziokoek zein atzerrikoek, ematen dituzten bertzelako dirulaguntzekin. Haien zenbatekoak, bakarrik edo denak baturik, ezin izanen du behin ere egin beharreko jardueraren kostua gainditu. Diru-sarreraren eta gastuen justifikazioa aztertutakoan, diru-sarrerak gastuak baino handiagoak direla ikusten bada, Baztango Udalak emandako dirulaguntzari gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko dio.

Ekitaldi batean dirulaguntza jasotzeak ez du ondoko deialdietan dirulaguntza jasotzeko inolako eskubiderik suposatuko.

5. Irizpideak

Kultur jarduerak antolatzeko oinarrian ezarritakoaren arabera eskatutako laguntzetan, honako hau baloratuko da:

- Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. % 10.

- Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea. % 10.
- Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatezko lana kontuan hartuko da. % 10.
- Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea. % 30.
- Baztanen egoitza soziala duten erakunde desberdinen arteko elkarlana baloratuko da. % 10. Entitate batek antolatzaile gisa agertu behar du, eta gainerakoak parte hartzaile gisa. Elkarre antolatzaileak jarduerari dagokion dirulaguntza jasoko du. Laguntzaren eskabidean, entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromisoak adierazi behar ditu, baita haietako bakoitzagatik aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere. (IV. Eranskina)
- Elizondotik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. %10.

6. Udalaren betebeharrak

Diruz lagundutako jarduerak agendan sartzea, betiere antolatzaileek epearen barnean horren berri ematen badute. Udalak bere materialak, baliabideak eta lokalak laga beharko ditu.

7. Onuradunaren betebeharrak

Dirulaguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izan behar dituzte:

- Dirulaguntzen onuradunek jasotako laguntza zehaztutako xedeetarako erabili behar dute eta hala izan dela agirien bidez ziurtatu.
- Onuradunek behin proiektua akituz gero, jardueraren oroitidazkia edo memoria (II eranskina), diruz lagundutako jardueraren erabiltzaileen edo onuradunen eta proiektua edo jarduera gauzatzeko atxikitako langile kontratatuen edo boluntarioen datuak sexuaren arabera bereizita, balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) eta jarduera egiterakoan izandako gastuen frogagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatutakoak) aurkeztu beharko dituzte, 2026ko azaroaren 6a baino lehen.
- Onuradunek diruz lagun daitezkeen jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortzen badituzte, zenbatekoak Baztango Udalarari jakinarazi beharko dizkiote.
- Onuradunek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, batez ere Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza. Baita 36/2024 Foru dekretua, apirilaren 17koa, ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzkoa 2024ko 91 Nafarroako Aldizkari ofiziala, maiatzaren 3koa eta 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunarena
- Onuradunek dirulaguntza jaso duten jardueren publizitate eta hedapenerako Baztango Udalaren ikurra erabili beharko dute.
- Onuradunek programaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera, gertatzen den unean berean jakinarazi beharko diote Baztango Udalarari.
- Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestu beharko dira, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudiak sustatu, salbu eta, laguntzaren izaeragatik, justifikatuta badago ez sartzea. Horretarako, onuradunek, "*Guía sobre estrategias de comunicación incluyente: El Género como prioridad*" gida kontsulta dezakete, helbide honetan eskuragarri dagoena: <https://labur.eus/guiadecomunicacion>

Oinarrietan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez bada, laguntza osorik edo hein batean baliogabetuko da eta, hala badagokio, itzuli egingen da.

8. Dirulaguntzaren itzulketa

Dirulaguntzak emateko ebazpena baliorik gabe utziko da eta jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren II. tituluko I. eta II. kapituluetan araututako kasuetan eta ezarritako moduan.

9. Arau-hauste eta zehapen administratiboak

Dirulaguntzen eta laguntza publikoen arloko arau-hausteak eta zehapenak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

10. Errekurtsoak

Deialdiak agiri honek bildutako baldintzei jarraituko die; agiriak ez bildutakoari dagokionez, ondoko arauei jarraituko die: Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Tokiko Ogasunen Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea eta, osagarri gisa, Aurrekontuen gaineko Lege Orokorra, estatu mailan dirulaguntzak arautzen dituen.

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

- Jakinarazi eta hurrengo hilabetean, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen udal organoari zuzendua (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena). Berraztertze errekurtsoa aurkeztu bada, ezin da ez goiti jotzekorik ez administrazioarekikorik aurkeztu, harik eta lehenbizikoa ebatzi edo atzera botatzen den arte. Berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren kontra ezin izanen da errekurtso hori bera berriz aurkeztu.
- Hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu daiteke, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua (uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea). Errekurtso hori aurkeztu bada, ezin izanen da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu, harik eta gora jotzeko errekurtsoa ebatzi edo atzera botatzen den arte.
- Bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua (uztailaren 13ko 29/1998 Legea).

11. Legedi aplikagarria.

Dirulaguntza hauek, oinarri hauetaz gain, Baztango Udalaren kasuan kasuko ekitaldiko aurrekontua betearazteko oinarriak arautzen dituzte, baita ondoko legeek ere: 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Toki-Administrazioaren gainekoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena, eta horiekin bat datorren gainerako legeria.

- I Eranskina (Eskabidea)
- II Eranskina (Memoria)
- III Eranskina (Erantzukizunpeko adierazpena)
- IV Eranskina (Elkarteen arteko akordioa)

**BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA PÚBLICA DE SUBVENCIONES PARA
ACTIVIDADES CULTURALES PROMOVIDAS POR LAS ASOCIACIONES DE BAZTAN PARA EL AÑO
2026**

El Ayuntamiento de Baztan, con el fin de apoyar la realización de actividades culturales de asociaciones y entidades artísticas acuerda las presentes bases en concurrencia competitiva.

La dotación máxima de esta convocatoria es de **22.000 euros según la partida presupuestaria 1-3340-4890000 “subvenciones asociaciones culturales” del presupuesto del año 2026**. En el caso de que la dotación presupuestaria 1-3269-4890001 no se agote en su totalidad el Ayuntamiento de Baztan la destinará a la partida 1-3340-4890000.

1. Objeto

Apoyar económicamente la realización de **actividades culturales**:

- a) Que favorezcan el uso del euskera.
- b) De carácter formativo (cursos, talleres, conferencias).
- c) De carácter creativo (exposiciones).
- d) De carácter artístico (teatro, vídeo, conciertos) u otras de naturaleza semejantes.
- e) Que sean abiertas a toda la población.
- f) Que fomenten la igualdad de género y/o la prevención de la violencia contra las mujeres.

Quedan excluidas de la convocatoria:

- a) Las actividades de carácter docente, previstas o paralelas a programas de enseñanza.
- b) Actividades de carácter deportivo.
- c) Las fiestas patronales y actividades asistenciales.
- d) Las actividades que tengan lugar fuera del ámbito territorial del municipio.
- e) Las actividades subvencionadas totalmente por el Gobierno de Navarra u otros organismos.
- f) La adecuación de locales o cualquier otro tipo de intervención urbanística.
- g) Los gastos derivados del funcionamiento (alquiler, teléfono, luz, nóminas de personal...) los gastos de manutención (comidas, cenas, “lunch”, etc.), kilometrajes y los gastos de grupos musicales (orquestas).
- h) Actividades que incluyan aspectos sexistas, racistas, de violencia etc.
- i) Actividades que entren en competencia con la oferta municipal.
- j) Los gastos de actividades en los que las asociaciones subvencionan a otras entidades.
- k) Cursos y talleres de cocina y gastronomía
- l) La compra de gigantes y cabezudos
- m) Vestuario que pueda tener otro uso distinto a la recreación de la obra, o que sean artículos de promoción comercial.

Conceptos que serán subvencionables:

- a) Organización. Únicamente serán subvencionables los gastos que genere directamente la realización y desarrollo del proyecto cultural, no admitiéndose en ningún caso, ni en todo ni en parte, como gasto subvencionable, los gastos de gestión de la estructura de la entidad solicitante (gastos de personal, gastos de mantenimiento de los locales, gastos de mantenimiento de su estructura funcional, alquileres...).

2. Requisitos de la entidad beneficiaria

Las entidades beneficiarias de estas ayudas deberán reunir los siguientes requisitos:

2..1. Ser una asociación sin ánimo de lucro. Deberá presentar los estatutos de la asociación, si esta documentación obra ya en poder del Ayuntamiento de Baztan, sólo será necesario aportar una declaración responsable de la persona representante legal indicando que la misma no se ha modificado. (Anexo III)

2.2. Tener domicilio social y fiscal en Baztan.

2.3. Estar al corriente de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social y no estar en deuda con el Ayuntamiento de Baztan.

2.4. Las entidades beneficiarias deberán aportar prueba documental del cumplimiento de los requisitos.

No podrán participar y estarán excluidas de la concurrencia en la presente convocatoria de subvención:

- Las personas físicas o jurídicas cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.
- Las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas o condenadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, o por discriminación salarial, o por acoso sexual o moral, o por cualquier otro trato desigual por razón de sexo.
- Las entidades o empresas que incumplan las obligaciones establecidas en la legislación sobre igualdad de género. Las entidades que hayan sido sancionadas o condenadas por ejercer o tolerar prácticas laborales consideradas discriminatorias por razón de sexo o de género, por resolución administrativa firme o sentencia judicial firme. A tal efecto, las empresas y las entidades solicitantes presentarán, en el momento de solicitar las ayudas, una declaración responsable de no estar cumpliendo sanciones administrativas firmes ni una sentencia firme condenatoria o, en su caso, de no estar pendiente de cumplimiento de una sanción o sentencia condenatoria impuesta por dichos motivos

No podrán obtener la condición de beneficiarias aquellas entidades en las que concurra algunas de las circunstancias establecidas en el artículo 13, apartados 2 y 3, de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones. Anexo III (requisito 4).

3. Convocatoria y tramitación

Las solicitudes se presentarán, debidamente cumplimentadas, de manera telemática a través del Registro electrónico del Ayuntamiento de Baztan [Sede Electrónica - BAZTAN](#) o en cualquier registro oficial por la persona que detenta legalmente la representación de la asociación.

El plazo de presentación será hasta el 6 de noviembre de 2026 inclusive.

La presentación a la convocatoria implica la aceptación de las bases, y las solicitudes deberán de cumplimentarse conforme al modelo facilitado. (Anexo I) Las actividades deberán realizarse desde el 8 de noviembre de 2025 al 6 de noviembre de 2026 ambos inclusive. El órgano competente para la ordenación e instrucción del procedimiento de concesión de las ayudas económicas será la Alcaldía u órgano en el que delegue.

Valoración. La comisión de valoración competente para realizar la propuesta de Resolución de las solicitudes estará compuesta por: Concejalía de cultura, personal técnico de cultura, y una concejalía nombrada por cada grupo político.

Asimismo, la comisión de valoración podrá requerir el asesoramiento a personal técnico que no forme parte de la comisión de valoración.

4. Concesión

La cuantía máxima a conceder no rebasará el 75% del total de los gastos subvencionables y aceptados.

Las entidades beneficiarias no podrán recibir más de 6.000 € de subvención.

El ayuntamiento podrá en atención a cada caso concreto requerir a las solicitantes cualquier otra documentación complementaria que consideren oportuna a los efectos de la valoración de la solicitud presentada.

Los requerimientos se realizarán por correo electrónico dirigidos a la dirección que aparece reflejada en la solicitud.

Antes de la concesión se podrá requerir la presencia de la entidad solicitante ante la comisión de valoración, para cuantas aclaraciones sean solicitadas por la misma. La cantidad concedida se abonará en un único plazo previa justificación de gastos: Memoria de la actividad desarrollada, (Anexo II) facturas y justificación de pago, declaración responsable sobre otros tipos de ayudas o ingresos utilizados en la realización de la actividad subvencionada.

El plazo de justificación de los gastos será hasta el día 6 de noviembre de 2026 inclusive.

Se debe justificar el 100% de los gastos admitidos y no sólo la cantidad concedida por el Ayuntamiento de Baztan. Los gastos se justificarán por medio de facturas originales emitidas a la asociación cultural que, una vez comprobadas, serán devueltos a la entidad solicitante de ayuda. Las facturas deberán contener todos los datos exigidos por la normativa legal, así como una descripción detallada de la actividad o servicio realizado. Únicamente se admitirán recibís cuando las actividades no se puedan acreditar por otro medio y, en todo caso, la persona que firma el recibí no ha de tener la condición de persona empresaria o profesional en cuyo caso estaría obligada/o a expedir y entregar la correspondiente factura. El recibí debe contemplar los siguientes datos: Nombre apellidos, NIF y domicilio de quien expide y entidad destinataria; descripción detallada de la operación o servicio; su precio total y, lugar, fecha y firma de quien recibe.

Los recibos y las facturas deberán ir acompañados de los justificantes de pago bancarios correspondientes.

La subvención concedida no será compatible con otras subvenciones del Ayuntamiento de Baztan, y será compatible con subvenciones de otras Administraciones Públicas, de otros entes públicos o privados, o de particulares, nacionales o internacionales. En todo caso, el importe de éstas no podrá ser en ningún caso de tal cuantía que, aislada o conjuntamente, supere el coste de la actividad a desarrollar por el mismo. Si cuando se analice la justificación de gastos e ingresos se observa que los ingresos superan los gastos, el Ayuntamiento de Baztan minorará la subvención en la cantidad del superávit.

La concesión de una ayuda con cargo a un ejercicio económico determinado no significa la adquisición de derechos para la concesión de subvención en años sucesivos.

5. Criterios

En las ayudas solicitadas según lo estipulado en la base 1.1, **realización de actividades culturales** se valorará:

- Se priorizan las actividades que tengan relación con la cultura local. 10%.
- Favorecer el uso y la promoción del euskera. 10%.
- Se valorará la participación de la ciudadanía. Se tendrá en cuenta el trabajo del voluntariado. 10%.
- Se valorará que la actividad sea organizada y desarrollada por la entidad solicitante y sus miembros. 30%.
- Se valorará el trabajo en común entre diferentes entidades con sede social en Baztan. 10%. Una entidad deberá figurar como organizadora y el resto como participantes. Recibirá la totalidad de la subvención correspondiente a la actividad la entidad organizadora. Deberán hacer constar los compromisos de ejecución asumidos por cada entidad, así como el importe de subvención a aplicar por cada uno de ellos (Anexo IV).
- Se valorará la realización de actividades fuera de Elizondo, es decir, las que tengan lugar en los restantes lugares del valle. 10%.

6. Obligaciones del Ayuntamiento

Incluir las actividades subvencionadas en la agenda cultural siempre que la asociación que organiza lo comuniquen dentro del plazo. El Ayuntamiento tendrá la obligación de ceder los materiales, recursos y locales municipales.

7. Obligaciones de las entidades beneficiarias

Las entidades beneficiarias deberán de cumplir las siguientes obligaciones:

- Las entidades beneficiarias de las subvenciones deberán destinarlas a los fines para los que se conceden y justificar documentalmente su aplicación.
- Las entidades beneficiarias deberán presentar al finalizar el proyecto, memoria de la actividad, (Anexo II) con datos desagregados por sexo de las personas usuarias o beneficiarias de la actividad subvencionada, y del personal adscrito a la ejecución del proyecto o actividad balance económico (gastos e ingresos) y facturas originales o fotocopias compulsadas de los gastos realizados durante el desarrollo de la actividad antes del día 6 de noviembre de 2026. Las entidades beneficiarias deberán comunicar al ayuntamiento de Baztan la cuantía obtenida de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionables.
- Es preceptivo para las entidades beneficiarias cumplir la normativa vigente. En especial, la Ordenanza Municipal Reguladora del Uso y Fomento del Euskera en el ámbito municipal de Baztan. Así como el Decreto Foral 36/2024, de 17 de abril, de actos públicos y sostenibilidad, publicado en el Boletín Oficial de Navarra nº 91, de 3 de mayo de 2024. y la Ley Foral 17/2019 de 4 de abril de Igualdad entre Mujeres y Hombres.
- Las entidades beneficiarias estarán obligadas a utilizar en la publicidad y divulgación de las actividades objeto de subvención el símbolo oficial del Ayuntamiento de Baztan.
- Las entidades beneficiarias deberán comunicar al Ayuntamiento cualquier eventualidad en el desarrollo de los programas subvencionados, en el momento que aquella se produzca.

En toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del proyecto o actividad, se deberá emplear un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y las imágenes, evitando cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de

roles e identidades de género. salvo que por la naturaleza de la ayuda esté justificada su no incorporación

- A estos efectos, las entidades beneficiarias pueden consultar "*La Guía sobre estrategias de comunicación incluyente: el Género como prioridad*" disponible en <https://labur.eus/guiadecomunicacion>

El incumplimiento de alguna de las obligaciones previstas supondrá la anulación total o parcial de la ayuda y la devolución si fuera el caso.

8. Reintegro

Procederá la nulidad de la resolución de concesión y el reintegro de las cantidades percibidas en los supuestos y en la forma regulada en el Capítulo I y II del Título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

9. Infracciones y sanciones administrativas.

Las infracciones y sanciones en materia de subvenciones y ayudas públicas se regirán por lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

10. Recursos

Las convocatorias se regirán por este documento y en lo no previsto en él, por lo establecido en la siguiente normativa: Ley Foral de la Administración Local de Navarra, Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra, Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria, Normativa estatal sobre subvenciones.

Frente a las presentes bases y los actos en ejecución de las mismas se podrán interponer los siguientes recursos:

- Dentro del mes siguiente a la notificación y con carácter potestativo, el de reposición, ante el órgano municipal autor del mismo (Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas); si se presenta recurso de reposición, no se pueden interponer el de alzada, ni el contencioso-administrativo, hasta que sea resuelto o desestimado presuntamente el primero. Contra la resolución de un recurso de reposición no podrá interponerse de nuevo dicho recurso.
- En el plazo de un mes desde la notificación y con carácter potestativo, el de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra (Ley Foral 6/1990, de 2 de julio). Si se presenta este recurso no se podrá interponer el contencioso administrativo hasta la resolución expresa o desestimación presunta del de alzada.
- En el plazo de dos meses, desde el día siguiente a la notificación, el contencioso-administrativo ante el órgano competente de dicha jurisdicción (Ley 29/1998, de 13 de julio).

11. Legislación aplicable

Estas subvenciones se rigen, además de por las presentes bases, por las Bases de Ejecución del Presupuesto del Ayuntamiento de Baztan para el ejercicio correspondiente, por la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se

aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones y por el resto de legislación concordante.

- Anexo I (Solicitud)
- Anexo II (Memoria)
- Anexo III (Declaración responsable)
- Anexo IV (Acuerdo entre entidades actividades)